

GIPUZKOAKO ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA SAREA PROGRAMAREN 2023ko LAGUNTZA DEIALDIA

Deialdiaren xedea:

Diru laguntzen xedea da Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea osatzen duten Gipuzkoako entitateei sostengua ematea, ikerketa eta inbertsio proiektuen bitartez.

Proiektuen hasierako data: **eskaera aurkezten den egunetik aurrera.**

Proiektuak burutzeko azken eguna: **2024ko irailaren 30a.**

Entitate onuradunen eskakizunak:

- Deialdiak eskatzen du irabazi asmorik gabeko entitateak Gipuzkoan kokatuak izatea. **Beraz, UPV/EHUren kasuan, ikertzaileek Gipuzkoako Campusean kokatutako sail edo institutuetaoak izan behar dute.**
- Ezin izango dute eskaerarik aurkeztu "I+G proiektuetarako laguntzen lerroan" A motakotzat hartzen diren UPV/EHUko ikertaldeek, beti ere, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntz Politika eta Kultura sailaren edota Ikerbasque-Zientziarako Euskal Fundazioaren diru laguntzak jasotzen badituzte.

Ikertzaile nagusiak bete beharreko baldintzak:

- UPV/EHUrekin funtzionario edo kontratu lotura izatea eskaera aurkeztu duen une beretik eta proiektua gauzatu bitartean (2024ko irailaren 30era arte).

Ikertaldeko kideek bete beharreko baldintzak:

- UPV/EHUrekin funtzionario edo kontratu lotura izatea eskaera aurkeztean.

GARRANTZITSUA: Ikertaldeko kideek, baldin eta laguntza gauzatu bitartean UPV/EHUrekin duten lotura amaitzen bazaie, ezin izango dute gasturik egotzi aipatutako egoeran dauden bitartean. Ikertzaile nagusiak eman beharko dio Ikerketaren arloko errektoreordeari proiektua gauzatu bitartean gertatzen diren bajen berri.

UPV/EHUko taldeek zer proiektu motak aurkeztu ditzaketen:

- Ekipamendu eta azpiegitura zientifiko-teknologiko aurreratuetan inbertitzeko proiektuak. Ezin izango da aurkeztu eskaera bat baino gehiago unibertsitateko ikertalde bakoitzeko.
- I+G proiektuak. Ezin izango da aurkeztu eskaera bat baino gehiago unibertsitateko ikertalde bakoitzeko.
- Gipuzkoa Next proiektuak.** Gipuzkoa Next lineako proiektuak material estrategikoetan zentratuko dira deialdi honetan, eta lehentasuna emango zaie haien eskasiarekin lotutako erronkak aplikazio kritikoetarako hobetzen dituzten ikerketei edo haiek erabiltzearen ondoriozko ingurumen-inpaktuari.
- Ez da erakunde bakoitzeko proiektu bat baino gehiago lagunduko diruz.

Proiektu horiek unibertsitateetako ikertalde eta egiturek egin ahal izango dituzte, osasun ikerketako institutuetaoek, zentro handietako negozio unitateetakoek eta 2. oinarrian jasotako eskakizunak betetzen dituzten entitateetakoek.

Aurrekontua prestatzeko jarraibideak:

- **Ekipamendu eta azpiegitura zientifiko-teknologiko aurreratuetan inbertitzeko proiektuak:**
Kasu honetan, Aldundiak egingo luke diru laguntza jaso dezakeen kostuaren % 50eko ekarpena, eta, ondorioz, ikertzaileak aditzera eman beharko du gainerako % 50 zer organikotatik finantzatuko den. Proiektuko jaso daitekeen gehieneko diru laguntza 100.000 eurokoa izango da, eta 150.000 eurokoa erakunde bakoitzeko. Maximo horren ondorioetarako, unibertsitatearen kasuan, fakultateak, eskolak, institutuak eta gainerako ikerketa-egiturak hartuko dira erakundetzat.
- **I+G proiektuak:**
Diru laguntza jaso dezakeen kostuaren % 100era arte finantzatuko da. Proiektuko jaso daitekeen gehieneko diru laguntza 100.000 eurokoa izango da. Erakunde bakoitzeko gehieneko diru-laguntza 220.000 €koa izango da. Maximo horren ondorioetarako, unibertsitatearen kasuan, fakultateak, eskolak, institutuak eta gainerako ikerketa-egiturak hartuko dira erakundetzat.
- **Gipuzkoa Next proiektuak:**
Diru laguntza jaso dezakeen kostuaren % 100era arte finantzatuko da. Lerro honetako proiektu bakoitzeko gehieneko diru-laguntza 160.000 €koa izango da. Ez da erakunde bakoitzeko proiektu bat baino gehiago lagunduko diruz.

UPV/EHUko Ikertaldeek aurkeztutako eskaerek zeharkako kostuen %20 jaso beharko dute aurrekontuan "I+G proiektuak" eta "Gipuzkoa Next proiektuak" modalitateetan.

GARRANTZITSUA: Irakasle-ikertzaileek ezin izango dute nominan ordainsaririk jaso deialdi honen bitartez. Deialdiko oinarriek debekatzen dute, berariaz, halako ordainsaririk jasotzea.

Eskaerak aurkezteko epea eta era:

Eskaerak aurkezteko epea **2023ko apirilaren 19ko 13:00etan** amaituko da.

Eskaera aplikazio informatikoaren bidez aurkeztu beharko da **esteka** honen bidez.

UPV/EHUko tramitea:

Ikertzaile nagusiek berek jakinarazi beharko dute, posta elektronikoz (convocatorias.dgi@ehu.eus), deialdi honetara eskaera bat aurkezteko asmoa dutela **2023ko martxoaren 31a baino lehen**, eta aurkeztu beharreko agiri guztiak igorri beharko dituzte **2023ko apirilaren 17an**, 12.00ak baino lehen, berrikus daitezen eta eskaera aurkezteko epearen barruan.

Une horretan egiaztatuko da taldea osatzen duten pertsonen bat egiten dutela UPV/EHUREN

barne arautegiarekin eta, horrez gain, deialdian ezarritako baldintzak ere betetzen dituztela, bereziki ez dihardutela Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren edota Ikerbasque-Zientziarako Euskal Fundazioaren A motako ikertaldeetan.

"Ekipamendu aurreratuan inbertitzeko proiektuak" izeneko kasuan, ikertzaile nagusiak une horretan eman beharko du aditzera gainerako aurrekontuaren %50 zein organikatik kofinantzatuko den.

Adierazitako baldintzaren bat betetzen ez bada, eskariak ez du legezko ordezkariaren sinadurarik jasoko.

Harremanetarako:

UPV/EHU:

Helbide elektronikoa:

convocatorias.dgi@ehu.eus

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA:

Tel.: 943 112 233

Helbide elektronikoa: msalustiano@gipuzkoa.eus

Informazio gehigarria:

Sakatu-> [Hemen](#)